ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA **Esp. Zkia: 2024ZERL0002**

PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1.KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honen arabera egiten den kontratuak honako xede hau izango du; **AZKOITIKO HIRI-MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN PLANA IDAZTEKO LAGUNTZA TEKNIKOA kontratatzea,** bai Preskripzio Teknikoen Agirian zehaztutako baldintzetan, bai Agiri honetan bertan zehaztutakoetan eta baita, kontratuaren esleipendun izaten den eskaintzan zehaztutakoetan ere.

CPV Nomenklatura:

71356200-0 Aholkularitza Teknikoko Zerbitzua.

Kontratuaren xedeak sorta bakarra du.

Ez da onartuko eskaintza alternatiboen proposamenik.

Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriak eta baldintza teknikoen agiriek kontratu-izaera izango dute eta esleipendunak, onespenaren adierazle gisa, sinatu egin beharko du kontratua izenpetzerakoan.

I. CONTENIDO DEL CONTRATO

1.OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto la contratación de la **ASISTENCIA TÉCNICA PARA LA REDACCIÓN DEL PLAN DE MOVILIDAD URBANA SOSTENIBLE DE AZKOITIA** en las condiciones determinadas en el Pliego de Prescripciones Técnicas, en el presente Pliego y en la oferta que resulte adjudicataria del contrato.

Nomenclatura CPV:

71356200-0 Servicio de Asistencia Técnica.

El objeto de este contrato viene configurado como un único lote.

No se admitirá la propuesta de ofertas alternativas.

El Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el Pliego de Prescripciones Técnicas tendrán carácter contractual y deberán ser firmados en prueba de conformidad por el adjudicatario en el acto de formalización del contrato.

IDAZKARITZA – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA

2. KONTRATU BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA

Kontratu hau prestatzeko dokumentazioan justifikatu dira, 2017ko SPKLko 28. artikuluari jarraiki, helburu instituzionalak, kontratuaren bitartez bete beharreko premia administratiboen izaera eta hedadura, kontratuaren xedearen eta edukiaren egokitasuna premia horiek betetzeko eta kontuan hartutako faktore guztiak.

2. JUSTIFICACIÓN DE LA NECESIDAD DE CONTRATAR

En la Memoria se justifican, conforme a lo señalado en el artículo 28 de la Ley de Contratos del Sector Público, los fines institucionales, la naturaleza y extensión de las necesidades administrativas a satisfacer mediante el contrato, la idoneidad de su objeto y contenido para satisfacerlas, así como los factores de todo orden tenidos en cuenta.

3. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA

Kontratuak **URTEBETEKO (1)** iraupena izango du, kontratu administratiboa sinatzen den egunetik zenbatzen hasita. Sinatze hori zerbitzuak ematen hasi aurretik egingo da.

Hiru entrega partzialetan banatzen da, eta honela egin beharko da:
1.- Lehen entrega (0-4 hilabeteak): **Egoeraren diagnostikoa** kontratua formalizatu eta 4 hilabeteko epean entregatuko da.
2.- Bigarren entrega (4-9 hilabeteak): **Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Planaren lehen bertsioa** egoeraren diagnostikoa entregatu eta 5 hilabeteko epean entregatuko da.
3.- Hirugarren entrega (9-12 hilabeteak): **Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Planaren azken bertsioa** entregatzeko epea 3 hilabetekoa izango da, lehen bertsioa entregatu eta hurrengo egunetik hasita.

Epe hori igaroz gero, kontratatutako enpresa berandutze egoeran egongo da eta Administrazioaren aldetik ez dago ohartarazi beharrik izango.

3. DURACIÓN DEL CONTRATO Y PLAZO DE EJECUCIÓN DE LA PRESTACIÓN

La duración del presente contrato será de **UN (1) AÑO**, a contar desde la firma del contrato administrativo. La firma del mismo se realizará antes de empezar a prestar los servicios.

El plazo se divide en tres entregas parciales que deberán de realizarse del siguiente modo:
1.- Primera entrega (0-4 meses): el **diagnóstico de situación** se entregará dentro de los 4 meses desde la formalización del contrato.
2.- Segunda entrega (meses 4-9): La **primera versión del Plan de Movilidad Urbana Sostenible** se entregará dentro del plazo de 5 meses siguientes a la entrega del diagnóstico de situación.
3.- Tercera entrega (9-12): La entrega de la **última versión del Plan de Movilidad Urbana Sostenible** se entregará dentro del plazo de los 3 meses siguientes a su primera versión

La empresa contratada se entenderá incursa en mora por el transcurso del plazo citado, no siendo necesaria intimación previa por parte de la Administración.

IDAZKARITZA – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA
2

4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Lizitazioaren urteko oinarrizko aurrekontua, **%21eko BEZa barne, 53.852,26€**, izango da, horietatik 44.506,00€ printzipalari dagozkio eta 9.346,26€ %21eko BEZari eta kopuru hori beherantz hobetu ahal izango dute lizitatzaileek euren eskaintzetan.

Kopuru horiek beherantz hobetu ahal izango dituzte lizitatzaileek euren eskaintzetan.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 100.2 artikuluan zehaztutako ondorioetarako, aurrekontua honela dago banakatuta:

- **Zuzeneko kostuak:** 37.400,00€
- **Zeharkako kostuak:** 4.862,00€
- **Onura industriala:** 2.244,00€

Era berean, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 101. artikuluak xedaturikoa aintzat hartuta, kontratuaren balio zenbatetsia, iraupena kontuan hartuta, egonez gero, luzapenak barne eta BEZ gabe **44.506,00€**koa da.

Eskainitako prezioan, kontratatutako prestazioak behar bezala betetzeko egin behar dituzten gastu guztiak barne hartuko dira, alegia, gastu orokorrak, finantzarioak, irabaziak, aseguruak eta laneko denbora, langileen joan-etorria zerbitzua eskaintzen den lekuraino, dietak, beren kargura dauden langile teknikoen ordainsarien hornidurak, tasak eta deskontu mota guztiak, bereziki BEZa; horiek ezingo dira

4. PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN Y VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO

El presupuesto base de licitación anual será de **53.852,26€, 21% IVA incluido**, de los cuales 44.506,00€ corresponden al principal y 9.346,26€ al 21% de IVA, cantidad que podrá ser mejorada a la baja en sus ofertas por los licitadores.

Estas cantidades podrán ser mejoradas a la baja por los licitadores en sus ofertas.

A los efectos previstos en el artículo 100.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, el referido presupuesto se desglosa del siguiente modo:

- Costes directos: 37.400,00€
- Costes indirectos: 4.862,00€
- Beneficio industrial: 2.244,00€

Asimismo, de conformidad con lo establecido en el artículo 101 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, el valor estimado del contrato, teniendo en cuenta la duración del contrato, incluidas prórrogas si se produjeran e IVA excluido, es de **44.506,00€**.

En el precio ofertado se incluirán todos los gastos que deban realizar para el normal cumplimiento de las prestaciones contratadas, como son los generales, financieros, beneficios, seguros y tiempo de trabajo, desplazamientos del personal hasta el lugar de la prestación del servicio, dietas, suplidos en honorarios del personal técnico a su cargo, tasas y toda clase

IDAZKARITZA – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA

jasanarazi, beraz, esleipen prezioaren partida bereizi gisa, eta Udalak ez du inolaz ere eratortzen den zenbatekoa baino handiagorik ordainduko.

de descuentos, en especial el IVA, sin que por tanto puedan ser repercutidos como partidas independientes del precio de adjudicación, de tal suerte que la Corporación no abonará bajo ningún concepto, cantidad superior a la que resulte.

Dagokionean, Balio Erantsiaren gaineko Zerga banakatuta agertu beharko da eskaintzetan, kontratuari aplikagarri zaion tipoa eta zenbatekoa bereizita, berau arautzen duen arautegiaren arabera.

En su caso, el Impuesto sobre el Valor Añadido, no obstante, deberá figurar de manera desglosada en las ofertas, indicando tipo e importe aplicable al contrato.

5. KONTRATUAREN FINANTZAKETA

Aurrekontuan nahiko kreditu dago kontratua betetzetik sortzen diren betebeharrei erantzuteko, jarraian zehazten den aurrekontu-partidan:

7000.227.170.00.12.2024

Era berean, plangintza honen eraginpean geldituko diren hurrengo ekitaldirako aurrekontuan ere beharrezko diren kredituak gordetzeko konpromisoa hartuko du aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

5. FINANCIACIÓN DEL CONTRATO

Existe crédito presupuestario suficiente para atender a las obligaciones que se deriven para el cumplimiento del contrato, en la partida presupuestaria que se indica a continuación:

7000.227.170.00.12.2024

Asimismo, el órgano competente en materia presupuestaria se compromete a reservar los créditos oportunos en los presupuestos de los ejercicios futuros que resulten afectados.

6. PREZIOAREN ORDAINKETA

Kontratuaren prezioa honako eran ordainduko da:

- Kontratua sinatzerakoan esleipen prezioaren %30a ordainduko da.
- Diagnostikoa ematean esleipena prezioaren %20a ordainduko da.
- Hiri-Mugikortasun Iraunkorreko Plana jaso eta onartzean %50a ordainduko da.

6. FORMA DE PAGO

El pago del precio del contrato se realizará de la siguiente manera:

- Pago del 30% del precio de adjudicación tras la firma del contrato.
- Pago del 20% del precio de adjudicación a la entrega del Diagnóstico.
- Pago del 50% del precio de adjudicación a la recepción y aceptación del Plan de Movilidad Urbana Sostenible.

IDAZKARITZA – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA
4

Kontratuaren prezioa konturako pagamenduen bidez ordainduko da, faktura aurkeztuta eta prozedura honen arabera:

a) Esleipendunak **faktura formatu elektronikoan** aurkeztuko du, *Gipuzkoako Fakturen Sarrera Puntu orokorraren* (FSPOe) bitartez (https://gfaegoitza.net/SarreraPuntua), Faktura elektronikoa sustatzeko eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legeak ezarritakoarekin bat eta banakatuta eta amaitutako hilabete bakoitzeko, eta zenbatekoa urteko guztizko esleipen-zenbatekoaren eta kontratua bete behar den hilabete-kopuruaren arteko zatiketatik lortzen den emaitza izango da.

Unitate organikoen DIR3 kodeak:

Azkoitiko Udala
Organo kudeatzailea:L01200179
Unitate tramitatzailea: L01200179
Kontabilitate bulegoa: L01200179

b) Era berean, fakturarekin batera, langileen nominak eta gizarte-segurantza ordaindu direlako egiaztagiriak ere aurkeztu beharko ditu (kasuan kasuko bankuak zigilatutako nominak eta TC1 eta TC2 orriak).

c) Aipatu fakturak dagokion Saileko Arduradunaren oniritzia jaso beharko du, eta ondoren, arloko zinegotzi delegatuak, hala egokituz gero, faktura funtsen Udal Kontu-hartzailetzara eramatea erabakiko du, hura ordaintzeko, Administrazioak aurrekontua betetzeko ezarri duen araudian ezarritakoaren arabera.

El pago del precio del contrato se efectuará mediante abonos a cuenta, contra factura, con arreglo al siguiente procedimiento:

a) El adjudicatario presentará **la factura en formato electrónico**, a través del *Punto General de Entrada de Facturas de Gipuzkoa* (PGEFe) (https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua), desglosada y por el importe de dividir el total anual de adjudicación por el número de meses de ejecución y según lo dispuesto en la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de impulso de la factura electrónica y creación del registro contable de facturas en el Sector Público.

Códigos DIR3 de las unidades orgánicas:

Ayuntamiento de Azkoitia
Órgano gestor: L01200179
Unidad tramitadora: L01200179
Oficina contable: L01200179

b) Asimismo, deberá presentar junto con la factura, la documentación acreditativa del pago de las nóminas y la Seguridad Social de los trabajadores (nóminas y TC1 y TC2 sellados por la entidad bancaria correspondiente).

c) Las citadas facturas serán objeto de visto bueno del Responsable del Departamento correspondiente, y posteriormente el Concejal Delegado del Área acordará, en su caso, el traslado a la Intervención municipal de fondos para su abono, de acuerdo con la norma de ejecución presupuestaria establecida por la Administración.

IDAZKARITZA – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA
5

Faktura onartu eta gero, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 198.4 artikuluan legez aurreikusitako epeetan ordainduko da. Hain zuzen, ordainagiriak hogeita hamar eguneko epean ordainduko ditu Administrazio kontratatzaileak, ordainagiria onartzen den egunetik zenbatzen hasita.

Una vez aprobada la factura, ésta será abonada dentro de los plazos legalmente previstos en el artículo 198.4 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público. En concreto, la Administración contratante abonará las correspondientes facturas en el plazo de treinta días, contados desde la aprobación de la factura.

7. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 103. artikuluak xedaturikoarekin bat, kontratu honi ez dagokio prezioaren berrazterketarik.

7. REVISIÓN DE PRECIOS

En el presente contrato no procederá la revisión de precios, de conformidad con el artículo 103 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

8. KONTRATAZIO ORGANOA

2017ko SPKLko bigarren xedapen gehigarria jarraituz kontratu honen kontratazio organoa Alkatea da.

8. ÓRGANO DE CONTRATACIÓN

De conformidad con la Disposición Adicional Segunda LCSP 2017, para el presente contrato el órgano de contratación es la Alcaldesa.

9. BERMEAK

Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.

Behin betiko bermea:

Kontratazio-organoak, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 145. artikuluak xedaturikoarekin bat, kalitate-prezio hobereneko eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileari errekerimendua luzatuko dio, eskainitako azken prezioaren %5eko behin betiko bermea – BEZa kanpo - eratu duela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkez dezan gehienez ere 10 egun balioduneko epean,

9. GARANTÍAS

Garantía provisional: no se exige.

Garantía definitiva:

El órgano de contratación requerirá al licitador que haya presentado la mejor oferta calidad-precio, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 145 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, para que dentro del plazo de diez (10) días hábiles, a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento, presente la documentación que acredite la constitución

IDAZKARITZA – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA

errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, kontuan hartuta kontratu honen hasierako iraupena urtebetekoa dela eta BEZa ez dagoela barne.

Bermeak Udal-diruzaintzan jarri beharko dira eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroren 8ko 9/2017 Legearen 108. artikuluak xedaturiko eran aurkeztu ahal izango dira:

a) Dirutan edo Zor Publikoko balioetan, kasu bakoitzean, Lege hori garatzen duten arauetan ezarritako baldintzen arabera. Eskudirua eta idazpena duten balioen ibilgetze-ziurtagiriak erakunde hauetakoren batean gordailutu behar dira: Gordailuen Kutxa Nagusian, edo Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren ordezkaritzetako sukurtsaletan, edo kontratugile izan eta ondorioen onuradun diren autonomia-erkidegoetako edo toki-entitateetako haren pareko kutxa edo establezimendu publikoetan, Lege hori garatzen duten arauek xedatutako modu eta baldintzetan.

b) Abal bidez. Abal hori aipatutako Legea garatzen duten arauek xedatutako modu eta baldintzetan mailegatu beharko dute Espainian jarduteko baimena duten bankuek, aurrezki kutxek, kreditu kooperatibek edo elkarren bermerako sozietateek. Abala aurreko a) atalean adierazitako establezimenduetako batean gordailatu behar da.

c) Kauzio-aseguruaren kontratu bidez. Kontratu hori aipatutako Legea garatzen duten arauek xedatutako modu eta baldintzetan egin beharko du arlo horretan jarduteko baimena duen entitate aseguratzaile batek. Aseguruaren ziurtagiria aurreko a) atalean adierazitako

de garantía definitiva del 5% del precio final ofertado, teniendo en cuenta que la duración inicial del presente contrato es de 1 año y excluido el IVA.

Las garantías se depositarán en la Tesorería Municipal y se podrán prestar conforme al artículo 108 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, en alguna de las siguientes formas:

a) En efectivo o en valores de Deuda Pública, con sujeción, en cada caso, a las condiciones establecidas en las normas de desarrollo de esta Ley. El efectivo y los certificados de inmovilización de los valores anotados se depositarán en la Caja General de Depósitos o en sus sucursales encuadradas en las Delegaciones de Economía y Hacienda, o en las Cajas o establecimientos públicos equivalentes de las Comunidades Autónomas o Entidades locales contratantes ante las que deban surtir efectos, en la forma y con las condiciones que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

b) Mediante aval, prestado en la forma y condiciones que establezcan las normas de desarrollo de esta Ley, por alguno de los bancos, cajas de ahorros, cooperativas de crédito, establecimientos financieros de crédito y sociedades de garantía recíproca autorizados para operar en España, que deberá depositarse en los establecimientos señalados en la letra a) anterior.

c) Mediante contrato de seguro de caución, celebrado en la forma y condiciones que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan, con una entidad aseguradora autorizada para operar en el ramo. El certificado del seguro deberá entregarse en los establecimientos

IDAZKARITZA – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA

establezimenduetako batean aurkeztu behar da.

Bermea dirutan jartzen bada, horri dagokion zenbatekoa KUTXABANK-eko 2095/5028/71/1060024527, zenbakiko kontu korrontean sartuko da, eta transferentzia-agiriaren kopia bat eramango da Udaleko Diruzaintzara. Horrekin batera, kontu korronte baten zenbakia ere aurkeztuko da, bermearen itzulketa egiteko.

Esleipendunak, bermearen gain, honako hauek hartuko ditu, SPKL-ren 110. artikuluaren arabera:

a) SPKLren 153. artikuluak xedaturikoaren arabera, kontratua epe barruan formalizatzeko betebeharraz.

b) SPKL-aren 192. artikuluaren arabera kontratistari ezarritako zigorrak.

c) Kontratuan adierazitako zerbitzuak ondo betetzea; kontratazio organoak onarturiko kontratistak eskainitako hobekuntzak barne, kontratistak bere betebeharrak betetzean berandutzearen ondorioz Administrazioari sortutako gastuak; kontratua suntsiaraztea bidezkoa ez bada, hura gauzatzeagatik edo ez betetzeagatik Administrazioari sortutako kalteak eta galerak.

d) Kontratua suntsiarazten denean, erabaki daitekeen konfiskazioa, hartan edo lege honetan adierazitakoaren arabera.

e) Gainera, behin betiko bermeak, kontratuan ezarririko berme-epealdian, eskainitako zerbitzuetan akatsik ez egoteaz erantzungo du.

señalados en la letra anterior.

En caso de constituirse en metálico, el importe de la garantía se ingresará en la cuenta corriente número 2095/5028/71/1060024527 de Kutxabank, entregando una copia de la transferencia en la Tesorería junto a un número de cuenta corriente donde se desee que se devuelva la garantía.

El adjudicatario, según lo dispuesto en el artículo 110 de la LCSP, responderá de:

a) De la obligación de formalizar el contrato en plazo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 153 de la LCSP.

b) De las penalidades impuestas al contratista conforme al artículo 192 de la LCSP.

c) De la correcta ejecución de las prestaciones contempladas en el contrato, incluidas las mejoras que ofertadas por el contratista hayan sido aceptadas por el órgano de contratación, de los gastos originados a la Administración por la demora del contratista en el cumplimiento de sus obligaciones, y de los daños y perjuicios ocasionados a la misma con motivo de la ejecución del contrato o por su incumplimiento, cuando no proceda su resolución

d) De la incautación que puede decretarse en los casos de resolución del contrato, de acuerdo con lo que en él o en esta Ley esté establecido.

e) Además, la garantía definitiva responderá de la inexistencia de vicios o defectos de los servicios prestados durante el plazo de garantía

IDAZKARITZA – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA
8

que se haya previsto en el contrato.

Kontratua aldatzearen ondorioz, haren balioak aldaketak izaten baditu, bermea berriz egokitu egingo da. Hori egiteko hamabost eguneko epea egongo da, kontratua aldatzeko ebazpenaren jakinarazpena esleipendunari egiten zaion egunetik zenbatzen hasita. Hori guztia Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 109.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

Cuando a consecuencia de la modificación del contrato, experimente variación el precio del mismo, se reajustará la garantía en el plazo de quince días, contados desde la fecha en que se notifique al adjudicatario la resolución de la modificación del contrato, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 109.3 de la LCSP.

SPKLren 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da bermea, osorik edo, behar denean, zati batean; bermearen epea amaitu eta esleipendunak kontratuko betebehar guztiak bete ondoren itzuliko da bermea.

La devolución de la garantía, tanto total como parcial en su caso, se realizará de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 111 de la LCSP, una vez vencido el plazo de la garantía y cumplidas por la empresa adjudicataria todas sus obligaciones contractuales.

10. KONTRATUGILEAREN PROFILA

10. PERFIL DE CONTRATANTE

2017ko SPKLko 63. artikuluari jarraikiz, toki-erakundearen kontratuzko jarduerari buruzko informazioa gardena eta eskuragarria izan dadin ziurtatze aldera, kontratatzailearen profilaren (www.azkoitia.eus) bitartez haren kontratuzko jarduerari buruzko informazioa emango da, kontratu honi dagozkion iragarkiak, agiri hau eta agiri teknikoa barne.

Conforme al artículo 63 de la LCSP 2017 y con el fin de asegurar la transparencia y el acceso público a la información relativa a la actividad contractual de esta Entidad Local, se facilita a través del Perfil de Contratante (www.azkoitia.eus) de la misma toda la información relativa a su actividad contractual, incluyendo los anuncios relativos al presente contrato, el presente pliego y el pliego técnico.

Profilak informazio hau du: toki-erakundeko kontratazio-organoarekin harremanetan aritzeko behar den informazio orokorra, topaguneak, telefono- eta fax-zenbakiak, posta-helbidea eta helbide elektronikoa, iragarkiak eta baldintzen agiriak eta egiten dituen kontratuei buruzko informazio berezia.

El Perfil incluye tanto la información de tipo general precisa para relacionarse con el órgano de contratación de la Entidad Local, como puntos de contacto, números de teléfono y de fax, dirección postal y dirección electrónica, informaciones, anuncios y pliegos de condiciones, así como la información particular relativa a los contratos que celebre.

IDAZKARITZA – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA
9

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

11. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena gauzatzeko **jardunbide irekia** erabiliko da, 2017ko SPKLren 156.6 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

Kontratuaren esleipena, kontratuaren xedearekin lotura duten hainbat irizpide aintzat hartuta egingo da, kalitate-prezio onenaren arabera, SPKLren 145. artikuluak eta baldintza agiri honen 15. klausulan ezarritakoari jarraituz.

Espedientearen izapidetzea **ohikoa** izango da.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte pertsona natural edo juridikoek, espainiar estatukoek edo atzerritarrek, baldin eta jarduteko ahalmen osoa badute, kontratatzeko inolako debekurik ez badute, eta beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala frogatzen badituzte.

Era berean, proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte 2017ko SPKLren 69. artikuluan xedatutakoaren arabera aldi baterako enpresa batasuna eratzen duten enpresek.

Kontratistaren jarduteko gaitasuna, kontratatzeko inolako debekurik ez duela eta horren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala plegu honetako 13. eta 19. baldintzetan zehazturiko eran egiaztatu beharko dira.

II. PROCEDIMIENTO DE CONTRATACIÓN

11. PROCEDIMIENTO Y FORMA DE ADJUDICACIÓN

La adjudicación del presente contrato se realizará por el **procedimiento abierto**, de conformidad con lo previsto en el artículo 156.6 de la LCSP 2017.

La adjudicación del contrato se realizará utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación vinculados al objeto del contrato, en base a la mejor relación calidad-precio, de conformidad con el artículo 145 de la LCSP y con la cláusula 15 de este Pliego.

La tramitación del expediente será **ordinaria.**

12. APTITUD PARA CONTRATAR

Podrán presentar proposiciones las personas naturales o jurídicas, del estado español o extranjeras, que tengan plena capacidad de obrar, no estén incursas en prohibiciones para contratar, y acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional.

Podrán, asimismo, presentar proposiciones las uniones de empresarios que se constituyan temporalmente en conformidad con lo dispuesto en el artículo 69 de la LCSP 2017.

La capacidad de obrar, la no concurrencia de alguna de las prohibiciones para contratar y la solvencia económica, financiera y técnica o profesional del contratista se acreditarán en la forma establecida en las cláusulas 13 y 19 del presente pliego.

IDAZKARITZA – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA
10

Era berean, pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo ahalorde askietsiaren bidez baimendutako ordezkarien bidez kontratatu ahal izango dute. Pertsona juridikoen ordezkariek, ordezkari izateko ahalmena dutela frogatu beharko dute agiri bidez. Kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak ordezkariari ere aplikatuko zaizkio.

Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante otorgado al efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello. Tanto en uno como en otro caso, al representante le afectan las causas de incapacidad citadas para contratar.

Eskaintza aurkeztu ahal izateko baldintza izango da, era berean, lizitatzaileak garatuko duen xedeak edo jarduerak harreman zuzena izatea kontratuaren xedearekin, dagozkion bere estatutuetatik edo fundazio arauetatik eratortzen denaren arabera eta behar bezala frogatuta. Halaber, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren elementu materialak eta langileak dituen antolaketa bat izan beharko du.

Será requisito, asimismo, para poder presentar oferta, que la finalidad o actividad que desarrolle el licitador tenga relación directa con el objeto del contrato, según resulte de sus respectivos Estatutos o reglas fundacionales y se acredite debidamente. Asimismo, deberá disponer de una organización con elementos materiales y personales necesarios para la ejecución del contrato.

13. PROPOSAMENAK, DOKUMENTAZIOA ETA AURKEZTEKO EPEA

Kontratazio honen espedientea, eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa eta pleguak eta gainerako dokumentazio osagarriak kontsultatu ahal izango dira Azkoitiko Udalaren kontratugilearen profilean, lizitazioaren iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzen den unetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Proposamenen aurkezpena bitarteko elektronikoak erabilita soilik egingo da, Kontratugilearen profilean argitaratutako lizitazio- iragarkian adierazitako epearen barruan - **HAMABOST (15) EGUN NATURALEKO**

13. PROPOSICIONES, DOCUMENTACIÓN Y PLAZO DE PRESENTACIÓN

El acceso al expediente de esta contratación, la documentación técnica unida al mismo, los pliegos y a la documentación complementaria podrá realizarse a través del Perfil de Contratante del Ayuntamiento de Azkoitia, a partir del momento en que aparezca publicado el anuncio de esta licitación en el mencionado Perfil de Contratante y hasta el vencimiento del plazo de presentación de proposiciones.

La presentación de proposiciones se llevará a cabo utilizando exclusivamente medios electrónicos, de conformidad con los requisitos establecidos en la Disposición Adicional decimoquinta de las LCSP 2017, dentro del

IDAZKARITZA – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA
11

epean, lizitazio iragarkia Kontratugilearen profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Hori jaieguna bada, epea hurrengo egun baliodunean amaituko da -, 2017 SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzekin bat etorriz.

plazo señalado en el anuncio de licitación publicado en el Perfil de Contratante, - **QUINCE (15) DÍAS NATURALES**, **contados a partir desde el día siguiente a la fecha de publicación del anuncio de licitación en el Perfil del Contratante**. Si éste coincide en festivo, el plazo finalizará el día hábil siguiente.

Proposamenak ezkutukoak izango dira, eta bitartekoak arbitratuko dira izaera hori bermatzeko, proposamenak irekitzen diren unera arte.

Las proposiciones serán secretas y se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento de apertura de las proposiciones.

Proposamenak elektronikoki aurkezteko informazio eta zehaztasun teknikoak, baita dataren zifratze eta balidatzea ere, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren barruan sartuta daude (www.contratacion.euskadi.eus).

Zerbitzu horiek erabiltzeak ondokoa esan nahi du:

1.- Lizitatzaileak modu telematikoan aurkeztu behar dituela bere eskaintzak.

2.- Sistemak egingo duela eskaintzen zaintza elektronikoa.

3.- Plataformaren bitartez irekiko eta ebaluatuko dela dokumentazioa.

Proposamenak bitarteko elektronikoz bidaltzea bi fasetan egin ahalko da; lehenik, proposamenaren aztarna elektronikoa igorriko da – hori jasotzearekin egintzat joko da aurkezpena ondorio guztietarako -, eta, ondoren, eskaintza bera 24 orduko epean, gehienez ere. Bigarren igorpen hori ez bada adierazitako epean egiten, eskaintza erretiratutzat joko da.

La información y las especificaciones técnicas necesarias para la presentación electrónica de las proposiciones, incluido el cifrado y la validación de la fecha, se encuentran alojadas en la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi (www.contratacion.euskadi.eus).

La utilización de estos servicios supone:

1.- La presentación de ofertas de forma telemática por el licitador.

2.- La custodia electrónica de ofertas por el sistema.

3.- La apertura y evaluación de la documentación a través de la Plataforma.

El envío por medios electrónicos de las ofertas podrá hacerse en dos fases, trasmitiendo primero la huella electrónica de la oferta, con cuya recepción se considerará efectuada su presentación a todos los efectos, y después la oferta propiamente dicha en un plazo máximo de 24 horas. De no efectuarse esta segunda remisión en el plazo indicado, se considerará que la oferta ha sido retirada.

IDAZKARITZA – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA
12

Eskaintzaren aztarna elektronikoa datu-multzo bat da zeinak eskaintzaren edukiarekin argi eta garbi lotzea bermatzen duen, eta eskaintzaren edukian egon daitezkeen aldaketak detektatzea ahalbidetzen duen, hala haren osotasuna bermatuz. Espedientean txertatu beharreko dokumentuen kopia elektronikoek bete egin beharko dute ondorio horretarako indarrean dagoen administrazio prozedura erkidearen alorreko legedia, bertan ezarritako guztiekin.

Se entiende por huella electrónica de la oferta el conjunto de datos cuyo proceso de generación garantiza que se relacionan de manera inequívoca con el contenido de la oferta propiamente dicha, que permiten detectar posibles alteraciones del contenido de ésta, garantizando su integridad. Las copias electrónicas de los documentos que deban incorporarse al expediente, deberán cumplir con lo establecido a tal efecto en la legislación vigente en materia de procedimiento administrativo común, surtiendo los efectos establecidos en la misma.

AURKEZPEN ELEKTRONIKOA

Erabiltzaileen Laguntza Zentroa

945 016 298 telefono zenbakia

Interneteko helbidea: http://www.contratacion.euskadi.eus

Posta elektronikoko helbidea: laguntzakpe@euskadi.eus (orriko lehiaketa eletroniko arloan)

Lizitatzaileek informazio gehigarria eskatzen badute klausula-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruz, jasotzeko ezarritako muga-eguna baino sei egun lehenago emango zaie informazio gehigarri hori beranduenez, baldin eta gutxienez proposamenak jasotzeko muga-eguna baino hamabi egun lehenago egin badira eskariak.

Esleipendun bakoitzak proposamen bat bakarrik aurkeztu dezake. Ezin izango da aldi-baterako enpresa elkartean proposamenik egin aurretik

PRESENTACIÓN ELECTRÓNICA

Centro de Atención a usuarios

Teléfono: 945 016 298

Dirección de internet: http://www.contratacion.euskadi.eus

Dirección de correo electrónico: laguntzakpe@euskadi.eus (dentro del apartado licitar electrónicamente)

La información adicional sobre los pliegos o sobre la documentación complementaria que, en su caso, soliciten los licitadores será facilitada en el plazo de seis días antes de la fecha límite fijada para la recepción de proposiciones, siempre que la solicitud haya sido realizada al menos doce días antes del vencimiento.

Cada licitador no podrá presentar más de una proposición. Tampoco podrá suscribir ninguna propuesta en unión temporal con otros si lo ha

IDAZKARITZA – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA
13

beste bat bakarka egin bada. Baldintza hori hausten duen enpresariari atzera botako zaizkio automatikoki aurkeztu dituen proposamen guztiak.

Proposamen bat aurkezteak enpresariak agiri honetako klausulak inolako baldintzarik gabe onartzen dituela esan nahi du.

PROPOSAMENEN EDUKIA

Lizitatzaileek **HIRU ARTXIBO ELEKTRONIKO (A, B eta C)** aurkeztu beharko dituzte:

Artxibo bakoitzean, enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta noren izenean sinatzen duen adieraziko dira, eta hiru artxiboek sinatuta egon beharko dute.

— «A» ARTXIBO ELEKTRONIKOA: Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena
— «B» ARTXIBO ELEKTRONIKOA: Balio judiziopeko irizpideen inguruko proposamena

— «C» ARTXIBO ELEKTRONIKOA: Formula matematiko bidez balioetsi daitezkeen irizpideen inguruko proposamena

«A» ARTXIBO ELEKTRONIKOA
KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

1.- Bere izenean edo beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean aurkeztu, proposamena duen pertsonaren **NAN.**

hecho individualmente o figurara en más de una unión temporal. La infracción de estas normas dará lugar a la no admisión de todas las propuestas por él suscritas.

La presentación de una proposición supone la aceptación incondicionada por el empresario de las cláusulas del presente Pliego.

CONTENIDO DE LAS PROPOSICIONES

Las proposiciones para tomar parte en la licitación se presentarán en **TRES ARCHIVOS ELECTRÓNICOS (A, B y C).**

En cada archivo se indicará la denominación de la empresa, nombre y apellidos de quien firme la proposición y el carácter con que lo hace, debiendo estar los tres archivos firmados.

— ARCHIVO ELECTRÓNICO «A»: Capacidad y solvencia para contratar
— ARCHIVO ELECTRÓNICO «B»: Proposición sobre los criterios evaluables mediante juicios de valor
—ARCHIVO ELECTRÓNICO «C»: Proposición sobre los criterios evaluables mediante fórmulas matemáticas

ARCHIVO ELECTRÓNICO «A»
CAPACIDAD Y SOLVENCIA PARA CONTRATAR

1.- DNI de la persona que presente la proposición, ya en nombre propio, ya en representación de otra persona física o jurídica.

IDAZKARITZA – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA

2.- Sektore Publikoko Kontratuen azaroren 8ko 9/2017 Legearen 140. artikuluan ezartzen duenez, lizitatzaileek **"Europa Batasuneko Kontratazioko Agiri Bakarra"** izeneko agiria aurkeztu beharko dute lizitazio prozeduran parte hartzeko baldintzak bete izanaren aldez aurreko froga gisa, baldintza horiek betetzeari buruzko egiaztagirien ordez; hain zuzen ere, adierazpen formala eta eguneratua aurkeztuko du enpresa interesatuak, non lizitatzaileak ondorengoa adierazten duen:

1.- Enpresa baliozkotasunez eratuta dagoela eta, bere helburu sozialaren arabera, aurkez daitekeela lizitaziora, eta aitorpena sinatzen duenak baduela proposamena aurkezteko eta haren behar besteko ordezkaritza.

2.- Baduela dagokion sailkapena, kasua bada, edo betetzen dituela jarduteko eskatzen diren finantza eta ekonomia kaudimenari eta gaitasun tekniko edo profesionalari dagozkien baldintzak, Europako kontratazio dokumentu bakarrean normalizatuta dagoen formularioaren arabera, pleguak finkatzen dituen baldintzetan.

3.- Kontratua egin ahal izateko debekurik ez duela egiaztatzen, ezta hedaduraz Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71.3 artikulua aplikatzearen ondorioz ere.

4.- Jakinarazpenak egiteko helbide elektroniko bat izendatzea.

Baldin eta enpresariak beste enpresen kaudimen eta baliabideetara jotzen badu, horietako bakoitzak ere Europako kontratazio dokumentu bakarra aurkeztu beharko du.

2.- La Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, en su artículo 140 establece que los licitadores como prueba preliminar del cumplimiento de los requisitos previos para participar en el procedimiento de licitación tendrán que presentar el formulario denominado **"Documento Europeo Único de Contratación",** consistente en una declaración formal y actualizada de la empresa interesada, en sustitución de la documentación acreditativa de estos requisitos, donde el licitador pone de manifiesto lo siguiente:

1.- Que la empresa está válidamente constituida y que conforme a su objeto social puede presentarse a la licitación, así como que el firmante de la declaración ostenta la debida representación para la presentación de la proposición y de aquella.

2.- Que cuenta con la correspondiente clasificación, en su caso, o que cumple los requisitos de solvencia económica, financiera y técnica o profesional exigidos, en las condiciones que establezca el pliego de conformidad con el formulario normalizado del documento europeo único de contratación.

3.- Que no está incursa en prohibición de contratar por sí misma ni por extensión como consecuencia de la aplicación del artículo 71.3 de la LCSP.

4.- La designación de una dirección de correo electrónico en que efectuar las notificaciones.

En los casos en que el empresario recurra a la solvencia y medios de otras empresas, cada una de ellas también deberá presentar el documento europeo único de contratación.

IDAZKARITZA – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA
15

Baldin eta enpresari batzuek aldi baterako enpresa elkartea antolatzera jotzen badute, parte hartzen duen enpresa bakoitzeko Europako kontratazio dokumentu bakarra aurkeztu beharko da.

Gainera, atzerriko enpresek, kontratua Espainian gauzatuko den kasuetan, jurisdikzioaren mende egoteari buruzko deklarazioa aurkeztu beharko dute.

EKAB-en inprimaki normalizatua kontratazio profilean egongo da eskuragarri.

Kontratazio Administratiboko Aholku Batzordeak, 2016ko apirilaren 6ko Ebazpenaren bidez (2016ko apirilaren 8ko EAO), hainbat jarraibide xedatzen ditu EKAB inprimakia betetzeko.

Behar bezala bete ondoren, dokumentu hori inprimatu, sinatu eta A artxibo elektronikoan sartu behar da.

Prozedura ondo burutzen dela bermatzeko, kontratazio-organoak edota kontratazio-mahaiak lizitatzaileei eska diezaieke dokumentazio zurigarri osoa edo zati bat aurkez dezaten, kontratuaren esleipenduna izateko klausula-agiri honetan eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, kontratua esleitu aurreko edozein unetan.

Kontratatzeko gaitasunaren, kaudimenaren eta debekurik ezaren zirkunstantziak, proposamenak aurkezteko azken egunera arte mantendu behar dira eta kontratua perfekzionatzeko unera arte.

En los supuestos en que varios empresarios concurran agrupados en una unión temporal, se aportará por cada empresa participante el documento europeo único de contratación.

Además las empresas extranjeras, en los casos en que el contrato vaya a ejecutarse en España, deberán aportar una declaración de sometimiento jurisdiccional.

El formulario normalizado del DEUC está disponible en el perfil de contratante.

La Junta Consultiva de Contratación Administrativa, mediante Resolución de 6 de abril de 2016, publicada en el BOE n.º 85, de 8 de abril del 2016, establece unas orientaciones para el cumplimiento del formulario normalizado DEUC.

Una vez debidamente cumplimentado, dicho documento deberá imprimirse, firmarse e incluirse en el archivo electrónico A.

El órgano o la mesa de contratación podrán pedir a los licitadores que presenten la totalidad o una parte de los documentos justificativos, cuando consideren que existen dudas razonables sobre la vigencia o fiabilidad de la declaración, cuando resulte necesario para el buen desarrollo del procedimiento y, en todo caso, antes de adjudicar el contrato.

Las circunstancias relativas a la capacidad, solvencia y ausencia de prohibiciones de contratar, deberán concurrir en la fecha final de presentación de ofertas y subsistir en el momento de perfección del contrato.

IDAZKARITZA – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA
16

3.- Hala badagokio, aldi baterako enpresa-elkarte bat eratzeko konpromisoa jasotzen duen dokumentu edo agiria; proposamena enpresa-elkarte batek egiten badu, elkarte horretan sartuta lehiatu nahi duten enpresaburuek hura osatzen dutenen izenak eta beste gorabeherak adieraziko dituzte, hala nola bakoitzak zer-nolako parte-hartzea daukan hartan eta guztiek beren gain hartzen dutela aldi baterako elkarte bat formalki osatzeko konpromisoa, esleipena egokitzen bazaie. Era berean, enpresek elkarteko ordezkari edo ahaldun bakar bat aukeratu beharko dute, askietsitako ahalordez hornitua, kontratua iraungi bitartean hartatik eratortzen diren eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko, inola ere baztertu gabe kobrantza eta pagamendu handiak egiteko ahalorde mankomunatuak emateko aukera.

3.- En su caso, documento de compromiso de constituir una Unión Temporal de Empresas; cuando la proposición se formule por una unión temporal de empresas, deberá presentarse un documento firmado por los representantes legales de todas ellas en el que se indiquen los nombres y circunstancias de los empresarios que lo suscriban, la participación de cada uno de ellos en la misma, así como que asumen el compromiso de constituirse formalmente en unión temporal de empresas en caso de resultar adjudicatarias. Asimismo, las empresas deberán designar a un único representante o apoderado, dotado de poder suficiente, para el cumplimiento de todos los derechos y obligaciones que se deriven del contrato hasta su extinción, incluyendo en todo caso la posibilidad de otorgar poderes mancomunados para realizar grandes cobros y pagos.

«B» ARTXIBO ELEKTRONIKOA BALIO-JUDIZIOPEKO IRIZPIDEEN INGURUKO PROPOSAMENA

Balio judizio baten arabera baloratu beharreko irizpideen baloraziorako beharrezkoak diren agiri guztiak sartuko dira, eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuko 26. Artikuluan ezarritakoa betez aurkeztuko dira. Bereziki honako hauek sartuko dira:

1. PROPOSAMEN TEKNIKOA

Kasu batean ere ez dira sartu behar artxibo elektroniko honetan proposamen ekonomikoa edo era automatikoan zenbatu daitezkeen esleipen-irizpideei dagokien beste edozein datu eta C artxibo elektronikoan sartu behar diren datuak.

ARCHIVO ELECTRÓNICO «B» PROPOSICIÓN SOBRE LOS CRITERIOS EVALUABLES MEDIANTE JUICIOS DE VALOR

Se incluirán aquellos documentos que sean precisos para la valoración de los criterios que dependan de un juicio de valor y se presentará cumpliendo el requisito establecido en el artículo 26 del Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo. En particular, deberán incluirse los siguientes:

1. PROPUESTA TÉCNICA

En ningún caso deben incluirse en el presente archivo electrónico, la proposición económica o cualesquiera otros datos correspondientes a criterios de adjudicación cuantificables de forma automática y que deberán incluirse en el archivo electrónico C.

IDAZKARITZA – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA

Datu horietako edozein sartuz gero B artxibo elektronikoan, lizitatzailea prozedura honetatik kanpo gelditu ahal izango da, eta ez da C artxibo elektronikoa irekiko.

La inclusión de cualquiera de dichos datos en el archivo electrónico B podrá suponer la exclusión de la empresa licitadora del presente procedimiento, y no se procederá a la apertura del archivo electrónico C.

«C» ARTXIBO ELEKTRONIKOA
FORMULA MATEMATIKO BIDEZ BALIOETSI DAITEZKEEN IRIZPIDEEN INGURUKO PROPOSAMENA

1.1 Proposamen ekonomikoa: Eskaintza ekonomikoa karaktere argiekin edo makinaz idatzita aurkeztu behar da. Beraz, toki erakundeak eskaintza aintzat hartzeko oinarrizkotzat jotzen duen edozer argi eta garbi ulertzeko hutsik, akatsik edo ezabaketarik badu, eskaintza ez da onartuko.

Eredu honen araberako proposamen ekonomikoa:

PROPOSAMEN EKONOMIKOA

..... jaunak/andreak, bizilekua ..... (kalea eta zk.) ..... (posta-kodea) jakinarazpenetarako helbidea duenak, NAN zk. ....., telefono zk. ..... eta helbide elektronikoa ..... dituenak, gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren jabetza osoa izanik, nire izenean (edo honen ordezkari gisa..... ....., ...posta-kodea, telefono zk. ..... eta NAN edo IFK ..... —pertsona fisikoa edo pertsona juridikoa den kontuan izanik, **"Azkoitiko Hiri-Mugikortasun**

ARCHIVO ELECTRÓNICO «C»
PROPOSICIÓN SOBRE LOS CRITERIOS EVALUABLES MEDIANTE FÓRMULAS MATEMÁTICAS

1.1 Propuesta económica: La oferta económica se presentará en caracteres claros o escritos a máquina, de modo que serán excluidas aquéllas que tengan omisiones, errores o tachaduras que impidan conocer, claramente, lo que la Entidad Local estime fundamental para considerar la oferta.

La propuesta económica según el modelo siguiente:

PROPOSICIÓN ECONÓMICA

D/Dª..... con domicilio a efectos de notificaciones en ..... CP ....., DNI nº....., teléfono ..... e-mail..... en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, en nombre propio (o en representación de..... ..... CP ....., teléfono....., y DNI o CIF (según se trate de persona física o jurídica) nº.....)), enterado de la convocatoria de la **"Contratación de la asistencia técnica para la redacción del Plan de**

IDAZKARITZA – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idazkaritza@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA
18

Jasangarriaren Plana idazteko laguntza teknikoa kontratatzeko" jardunbide ireki bidez eta kalitate-prezio hoberena, esleitzeko irizpide batzuk erabiliz, esleitzeko antolatutako lizitazioaren deialdiaren berri izanik eta argitaratutako baldintza-agiriak ezagutzen ditudala

ADIERAZTEN DUT:

